

HILOBIAK

Galarreta familiaren kripta (apezpiku-panteoia)

Kripta hau Kristo Santuaren kaperarekin lotuta dago. Francisco eta Martín de Galarreta anaiek sortu zuten kapera. Bi anaiek goi-ordezkaritzako eta diplomaziako eginkizunak bete zituzten Flandesen, Felipe IV.aren eta Karlos II.aren erregealdietan, eta, San Prudentzioren kapera txikia jarauntsi ondoren, hura zabaltzea erabaki zuten, hari Kristo Santuaren kapera gehituz. Eraikuntza-lanak 1661ean hasi ziren, eta Pedro de Amezti hargin gipuzkoarrak hartu zuen bere gain lanaren ardura, Juan de Ansola Ibaiguren Eibarko hargin ezaguna laguntzaile zuela. Harginok eraikuntza-lanez baino ez ziren arduratu; izan ere, traza edo diseinua Martín de Galarretak berak bidali zuen, Estatu Idazkari zela, Flandesetik. 1663rako amaituta zegoen obra. Eraikuntzak oinplano oktagonala du, eta laranja-erdiko kupula bat, linterna eta guzti, estalkitzat. Kripta bat zuen lurpean, familiakoen hilobirako. Gaur egun, Gasteizko gotzainak ehorzteko egokitu dute, bederatzi hilobi sartzen diren brontzezko ganbera bat eginda.



Egilea: Pedro de Amezti eta Juan de Ansola Ibaiguren

Data: 1661

Teknika: Harri landua

Kokapena: Santa Maria Katedrala (Vitoria-Gasteiz). Kristoren kapera



Oinarrizko hautaketa bibliografikoa:

AZCÁRATE RISTORI, José M.^a de. "Catedral de Santa María (catedral Vieja)", En: PORTILLA VITORIA, Micaela J. et al. *Catálogo Monumental Diócesis de Vitoria: Ciudad de Vitoria*. Vitoria-Gasteiz: Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, tomo III, 1968, pp. 102-103.

BARTOLOMÉ GARCÍA, Fernando R. "Fundación y patronato de los Alday y Galarreta. Las capillas de San Prudencio y Santo Cristo en la catedral Santa María de Vitoria-Gasteiz", *Ars Bilduma*, n° 0, 2010, pp. 14-39.



Altxor bizia

Testuak: Fernando R. Bartolomé García
Argazkiak: Quintas argazkilariak

araba álava
foru aldundia diputación foral

-k finantzaturako proiektua

Zuzendaritza eta koordinazioa:



katedrala
SANTA MARIA



arte.catedralvitoria.eus

Bisita gidatuak

Informazioa eta erreserbak
Tel. 945 255135
www.catedralvitoria.eus

Bisitarien zentroa



Santa María kantoia 3
01001 Vitoria-Gasteiz